Nolanahi ere, organo instruktoreak aurkeztu diren eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat hartzen dituen agiri edota argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskabidea aurkeztu duten erakunde eskatzaileei.

En todo caso, el órgano instructor podrá requerir a las entidades solicitantes, cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de la solicitud presentada.

16. artikulua. *Ebazteko epea*.

Foru dekretu honen babesean aurkeztutako eskabideak ebazteko gehieneko epea bukatuko da, behin deialdi bakoitzaren amaieraren biharamunez geroko 6 hilabeteko epea igarotakoan.

Aurkeztutako eskabide guztien esanbidezko ebazpena emateko eskumena duen organoak ebazpena eman behar badu ere, ebazpena eta jakinarazpena emateko epea iraungi eta esanbidezko ebazpena eman ez badu,eskabidea administrazio isilbidez baztertu dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Artículo 16 *Plazo de resolución*.

El plazo máximo para la resolución de las solicitudes formuladas al amparo del decreto foral finalizará transcurridos 6 meses desde la finalización del plazo para presentar solicitudes a cada convocatoria.

Sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa en todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación, ésta no se hubiese dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, conforme a lo dispuesto en el artículo 25.1.a) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

17. artikulua. *Ebazpenaren edukia eta jakinarazpena*.

Eskabideak Ekonomia Sustatzeko Saileko titularraren berariazko ebazpenaren bidez ebatziko dira. Kasu bakoitzari dagozkion baldintza bereziak ezarri ahalko dira dirulaguntzen eskabideei baiezkoa ematen dieten foru aginduetan, eta erakunde eta enpresa onuradunek nahitaez bete beharko dituzte baldintza horiek.

Onuradun bati dirulaguntza eman dion foru agindua jakinarazita, hamar (10) eguneko epea izango da hura onartzeko, eta epe horretan ez bada beren-beregi ezer adierazten, isilbidez onartutzat joko da.

Artículo 17. *Contenido y notificación de la resolución*.

Las solicitudes serán resueltas mediante resolución expresa de la persona titular del Departamento de Promoción Económica. En la orden foral por la que se resuelvan positivamente las solicitudes de subvención, podrán establecerse condiciones específicas a cada caso, que serán de obligado cumplimiento por parte de las entidades y empresas beneficiarias.

Notificada la orden foral de otorgamiento de la subvención se dispondrá de un plazo de diez (10) días para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa, se entenderá tácitamente aceptada.

18. artikulua. *Errekurtsoak*.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomia Sustatzeko Saileko titularrari, hilabeteko (1) epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da halako errekurtsoen jurisdikzioan jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa araupetu duen uztailaren 13ko

Artículo 18. *Recursos*.

La resolución agota la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la persona titular del Departamento de Promoción Económica, en el plazo de un (1) mes, a contar desde el día siguiente a aquel en que se reciba la notificación de la misma, en los términos que establece la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Asimismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante la Jurisdicción Contencioso Administrativa, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la notificación de la misma, en los términos contemplados

29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz. Ezin dira bi errekurtso horiek aldi berean jarri.

por la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa. No será posible simultanear ambos recursos.

19. artikulua. *Dirulaguntzari uko egitea.*

Onuradun gertatu diren pertsona edo erakundeetakoren batek dirulaguntzari uko egingo balio, dirulaguntza eskaintzen duen organoak zerrendan, ordenari jarraiki, hurrengo dauden pertsona edo erakunde eskatzaileei emango lieke, baldin eta eskabide horiei aurre egiteko kreditu nahikorik balego.

Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar eguneko epean dirulaguntza proposamena onets dezaten. Epe hori, gainera, ezin izango da luzatu. Dirulaguntza eskatu duten pertsonak edo erakundeek proposamena onartzen dutenean, administrazio-organoak laguntza emateko egintza ezarri eta jakinarazpenak egingo ditu.

Artículo 19. *Renuncia a la subvención.*

En caso de renuncia a la subvención de alguna de las personas o entidades beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión de la subvención a las personas o entidades solicitantes siguientes en orden de prelación, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

El órgano concedente comunicará esta opción a las interesadas, a fin de que acepten la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez (10) días. Una vez aceptada la propuesta por las personas o entidades solicitantes, el órgano administrativo dictará el acto de concesión y procederá a su notificación.

20 artikulua. *Ebazpena aldatzea.*

Onuradunak Enpresak Sustatzeko Zerbitzuari jakinarazi behar dio dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu.

Dirulaguntza ematen duen organoak dirulaguntza emateari buruzko ebazpena alda dezake, bere kabuz, interesdunari entzun eta gero eta funtsak erabili aurretik, dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzearen ondorioz lortu nahi zen interes publikoa lortzea oztopatu edo eragozten denean eta pertsona edo erakunde onuradunari kalte ekonomikorik ekartzen ez dionean.

Onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu ahal izango diote diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketa batzuk egin ahal izateko, hain zuzen, hauek: ezarritako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea. Aldundiak baimenduko ditu aldaketok ustekabeko arrazoietan edo jarduketaren xedearen onerako beharrezko arrazoietan oinarrituta daudenean eta betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste inoren eskubideen kalterako ez bada.

Dirulaguntza jasotzen duen onuradunak aurkeztutako justifikazioan adierazten badu ebazpena aldatzea eragin zezaketen aldaketak egon direla dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzetan (eta ez bada egin aldaketak onartzeko aurretiazko administrazio-baimenaren izapidea), dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartu ahalko du; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona edo

Artículo 20. *Modificación de la resolución.*

La entidad beneficiaria tendrá la obligación de comunicar al Servicio de Promoción Empresarial las modificaciones que, en su caso, pudieran producirse en relación con cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva, que hubiera sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando, habiéndose advertido una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, éstas impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se causen perjuicios económicos a la persona o entidad beneficiaria.

Las entidades beneficiarias, igualmente, podrán solicitar al órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando se deban a circunstancias imprevistas, o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se perjudiquen derechos de terceras personas.

Cuando la entidad beneficiaria ponga de manifiesto, con ocasión de la justificación, que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente podrá aceptar la justificación presentada, sin que ello exima a la persona

erakunde onuraduna maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

o entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo.

21. artikulua. *Publizitatea.*

Onuradunek Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 17.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, «Pertsona onuradunek ageriko egin behar dute, era egokian egin ere, dirulaguntza jasotzen duten programa, jarduera, inbertsio edo ekintza guztien finantzaketaren publikotasuna».

Artículo 21. *Publicidad.*

De conformidad con lo establecido en el artículo 17.3 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, las personas beneficiarias deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo que sean objeto de subvención.

22. artikulua. *Erakunde onuradunen betebeharrak*

Foru dekretu honetan dirulaguntzen onuradunentzat ezartzen diren betebeharrez gainera, laguntzak jasotzen dituzten onuradunek Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12., 13., 31.5 eta 41. artikuluetan ezarritakoak ere bete beharko dituzte, hala nola:

a) Dirulaguntza ematea funtsatzen duen jarduera egitea edo horretarako jokabidea hartzea.

b) Dirulaguntza ematea edo hura lortzea funtsatzen duen jarduera egin dela edo hura egiteko jokabidea hartu dela justifikatzea, bai eta laguntza ematea funtsatu duten baldintzak betetzen direla ere justifikatzea.

c) Dirulaguntza eman duen erakundeak egiten dituen egiaztapen-jardueren pean jartzea, bai eta dirulaguntzen eta laguntzen arloan Ogasun eta Finantza Sailari dagokion finantzen kontrolerako jardueren eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren prozedura fiskalizatzaileen pean ere.

d) Edozein administrazio edo erakunde publikok, nazionala izan zein nazioartekoa, dirulaguntza edo laguntzaren bat emanez gero xede bererako, dirulaguntza hau eman duen erakundeari horren berri ematea.

e) Kontabilitateko liburuak, erregistroak eta gainerako agiri guztiak edukitzea (kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritzako eta arloko legerietan ezarritakoaren arabera auditatuak), eta halaber izatea dirulaguntza hauen oinarrietan eskatzen diren kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak, horrela, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.

f) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak (are dokumentu elektronikoak ere) gordeta izatea, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan

Artículo 22. *Obligaciones de la entidad beneficiaria.*

Además de las obligaciones previstas en este decreto foral para beneficiarias de las subvenciones, son obligaciones de las entidades beneficiarias de las ayudas, las previstas en los artículos 12, 13, 31.5 y 41 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, siendo entre otras:

a) Realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

b) Justificar ante la entidad concedente, en su caso, la realización de la actividad o la adopción del comportamiento, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión o disfrute de la ayuda.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por la entidad concedente, en su caso, y a las de control financiero que corresponden al Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las subvenciones y ayudas concedidas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

d) Comunicar a la entidad concedente, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedente de cualesquiera Administraciones o Entes Públicos nacionales o internacionales.

e) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

f) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluido los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de

daitezkeen bitartean, arloan aplikatu beharreko araudiak horretarako zehazten duen epean zehar. Merkataritza Kodearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, liburuetan kontabilitateko azken idazpena egin eta hurrengo 6 urteetan zehar gorde beharko dira agiriok.

g) Onuradunek enpresa deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen dute. Enpresa deslokalizaziotzat jotzen da Enpresak deslokalizatzen direnean foru sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak ezarritakoa. Foru dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzei betebetean aplikatuko zaie foru arau hori.

Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki baten bidez adieraziko da konpromiso hori noiz ez den bete, eta, horren ondorioz, itzuli egin beharko da dirulaguntza, goraxeago aipatu den foru arauan ezarritako prozedura ezarriko baita.

h) Laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, zerga betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzea. Ezingo du onuradun izan lehenago jasotako beste dirulaguntzaren bat itzultzeko ordainketak egunean ez dituztenak. Dirulaguntza ez da ordainduko, harik eta pertsona onuradunak behar bezala egiaztatu arte egunean dituela zerga betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak. Horrenbestez, galdu egingo du ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea, eta 49. eta 50. artikuluetan baldintzak ez betetzeagatik xedatzen den prozedura abiaraziko da.

Eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio Ekonomia Sustatzeko Sailari, zuzenean eta telematikoki eskura ditzan inguruabarrok egiaztatzeko agiriak.

23. artikulua. *Jarraipena*.

Dirulaguntzen erakunde onuradunek agiri bidez justifikatu beharko dute gauzatu dituztela diruz lagundutako jarduerak eta betetzen dituztela laguntzak lortzeko foru dekretu honetan eta emakida-ebazpenean ezartzen diren baldintzak. Horrez gainera, Ekonomia Sustatzeko Sailak, eta, hala dagokionean, erakunde laguntzaileak eskatuta, edozein momentutan justifikatu beharko dituzte alderdi horiek.

Halaber, Ekonomia Sustatzeko Sailak, emaitzak egoki ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkio onuradunari lagundutako proiektua amaitu eta hurrengo hiru urteetan zehar.

24. artikulua. *Ez betetzeak*

las actuaciones de comprobación y control, durante el plazo al efecto establecido por la normativa aplicable. Documentación que deberá conservase durante los 6 años siguientes a partir del último asiento realizado en los libros de conformidad con el artículo 30 del Código de Comercio.

g) Asumir el compromiso de no incurrir en deslocalización empresarial, entendiendo por tal lo prevenido en la Norma foral 7/2007, de 27 de marzo, de recuperación de ayudas del sector público foral en el supuesto de deslocalizaciones empresariales, la cual será de plena aplicabilidad a las subvenciones reguladas por el decreto foral.

El incumplimiento de este compromiso será declarado mediante acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia y constituirá causa de reintegro de la subvención concedida, aplicándose el procedimiento previsto en la citada Norma foral.

h) Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social. Tampoco podrá obtener la condición de beneficiaria quien no se halle al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones. No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la entidad beneficiaria no acredite el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social, por lo que perderá el derecho al cobro del importe de subvención a pagar, iniciándose el procedimiento de incumplimiento previsto en los artículos 49 y 50.

La presentación de la solicitud conlleva la autorización de la entidad solicitante para que el Departamento de Promoción Económica obtenga de forma directa la acreditación de dichas circunstancias de forma telemática.

Artículo 23. *Seguimiento.*

Las personas o entidades beneficiarias deberán justificar documentalmente la realización de las actividades subvencionadas, así como el cumplimiento de las condiciones a que se sujeta su obtención, en la forma prevista en el presente decreto foral, y en la orden foral de su concesión, así como en cualquier momento a requerimiento del Departamento de Promoción Económica y en su caso, de la entidad colaboradora correspondiente.

Igualmente, el Departamento de Promoción Económica podrá recabar a la entidad beneficiaria la documentación y/o información complementaria que estime necesaria para la adecuada evaluación de los resultados correspondientes durante los tres años posteriores a la finalización del proyecto apoyado.

Artículo 24. *Incumplimientos.*

Foru dekretu honetan nahiz aplika daitezkeen beste arauetan ezarri diren baldintzak zein kasuan kasuko ebazpenean ezartzen direnak betetzen ez badira, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra erregulatzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutako zehapen-prozedura erabiliko da.

25. artikulua. *Ez-betetzea mailakatzeko irizpideak*

Aldi berean beste laguntza batzuk gertatu direlako, gehiegizko finantzaketarik sortuko balitz –maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasotako balizkoa–, gehiegikeriaz jasotako kopurua itzuli egin beharko litzateke, kopuru horri berandutze-interes egokia ezarri eta gero.

Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zalantza barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) dirulaguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du, edo, dirulaguntza aurretiaz ordaindu bada, dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

26. artikulua. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak*

Honako hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatu direnak, betiere epearen barruan egin badira, beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten badiete.

Eginiko gastutzat zera joko da: justifikaziorako ezartzen den epea amaitu aurretik ordaindu dena.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak ez dira onartuko baldin eta merkatuan duten balioa baino handiagoak badira.

Edonola ere, honako gastu hauek ez dute dirulaguntzarik jasoko:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), erakunde onuradunak konpentsatu edo berreskuratzea ezinezkoa denean izan ezik, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.8 artikuluarekin bat.

b) Dirulaguntzaren xedea den jarduerarekin inola ere identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdi

El incumplimiento de los requisitos establecidos en el presente decreto foral y demás normas aplicables, así como las condiciones que, en su caso se establezcan en la resolución, dará lugar a la aplicación de lo previsto en el Título IV de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Asimismo, será de aplicación el procedimiento sancionador regulado por la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 25. *Criterios de graduación de incumplimientos.*

En el supuesto de sobrefinanciación, por concurrencia con otras ayudas, contemplado en el artículo 18.3 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora.

El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación de la persona beneficiaria inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al pago parcial de la subvención o si se hubiera producido el abono anticipado de la subvención, al reintegro también parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.

Artículo 26. *Criterios generales de gastos subvencionables.*

Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

Se considerará gasto realizado el que ha sido pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación establecido.

No se admitirán costes de gastos subvencionables que sean superiores al valor del mercado.

En cualquier caso, no serán subvencionables:

a) El Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA), excepto en el caso en que no puedan ser recuperados o compensados por la entidad beneficiaria, tal y como se regula en el artículo 29.8 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo.

b) Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la

bakoitzerako epearen barruan egiten ez direnak.

subvención y/o no se realicen en el plazo establecido en cada convocatoria.

c) Eskatzailearen eta entitate hornitzailearen artean lotura dagoen kasuetan gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko, salbu eta 5/2005 Foru Arauko 27.7.d) artikuluan gastu horiek diruz lagungarritzat jotzeko baldintzak betetzen direnean. Bada, ondorio horietarako, dirulaguntzen araudia onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 53.2 artikuluan ezarritako kasuetako bat gertatzen denean ulertuko da lotura dagoela.

c) Los gastos en los que exista vinculación entre solicitante y entidad proveedora cuando no se den las condiciones establecidas en el artículo 27.7.d) de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, para su consideración como subvencionables. A estos efectos se entenderá que existe vinculación en los casos establecidos en el artículo 53.2 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

27. artikulua. *Aurrekontuaren muga.*

Aurkezten diren eskabide guztietatik, bakarrik hautatuko dira kasuan kasuko partidan izendatu diren aurrekontu-baliabideek ahalbidetzen duten beste eskaera.

Artículo 27. *Límite presupuestario.*

De las solicitudes presentadas únicamente podrán ser seleccionadas tantas como permitan las disponibilidades presupuestarias consignadas en la partida establecida al efecto.

28. artikulua. *Dirulaguntzak pilatzea.*

Dekretu honetan jasotako laguntzek edo dirulaguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori EE Itunaren 107 eta 108 artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, arautegi hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke enpresa arau-hausleari. Europako Batasunak ezarritakoaren arabera, edozein enpresari emandako de minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino gehiagokoa izango hiru zerga-ekitalditan.

Artículo 28. *Acumulación de ayudas.*

Las ayudas o subvenciones contempladas están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 1407/2013 de la Comisión de 18 de diciembre de 2013 relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de MINIMIS y en consecuencia el incumplimiento de esa normativa, podría significar responsabilidad penal, civil y administrativa para la empresa infractora. Según lo establecido por la Unión Europea, la ayuda total de MINIMIS concedida a cualquier empresa no deberá exceder de 200.000 euros en un período de tres ejercicios fiscales.

29. artikulua. *Dirulaguntzen bateragarritasuna.*

Dekretu honen babesean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako eman ditzaketen beste laguntza batzuekin. Hala ere, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza batzuekin batera.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren beste plan, programa edo jarduera-arlo batek diruz lagundutako gastuek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso.

Nolanahi ere, dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunek Ekonomia Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko diote beste dirulaguntzarik jaso duten, zein egunetan eman zaien gorabehera. Horrek guztiak hala behar du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako. Horrela, beraz, beste dirulaguntzen edo laguntza ekonomikoen zenbatekoak zenbatetsi eta, proiektua finantzatzeko ehunekoa mantentze aldera, dirulaguntza esleitzeko ebazpena aldatu ahal izango da.

Artículo 29. *Compatibilidad de las subvenciones.*

Las subvenciones otorgadas serán compatibles con cualesquiera otras provenientes de otros organismos públicos o privados asignadas para el mismo objeto. No obstante, conforme a lo establecido en el artículo 18.3 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras, supere el coste de la actividad subvencionada.

No serán subvencionables los gastos ya subvencionados por otros planes, programas o áreas de actuación del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia.

En cualquier caso, las entidades beneficiarias de las subvenciones tendrán la obligación de comunicar al Departamento de Promoción Económica la concesión de cualquier tipo de ayuda, independientemente de la fecha en que la misma haya sido concedida, a los efectos previstos en el artículo 18.3 y 4 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro.

Ekonomia Sustatzeko Saila beste finantzatzaileekin harremanetan jarri ahalko da baterako finantzaketa adosteko.

El Departamento de Promoción Económica podrá ponerse en contacto con el resto de partes financiadoras para llegar a un acuerdo de cofinanciación.

30. artikulua. *Dirulaguntzak argitaratzea*

Dirulaguntzak ematen diren egutegiko urtea amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa bukatu aurretik, ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

Halaber, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

Artículo 30. *Publicación de las subvenciones.*

De acuerdo con lo establecido en la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, se publicará un extracto de la resolución en el Boletín Oficial de Bizkaia antes del fin del primer trimestre posterior al vencimiento del año natural de concesión.

Igualmente, la Norma foral 1/2016 de 17 de febrero de Transparencia de Bizkaia será de aplicación a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

31. artikulua. *Erakunde laguntzailea.*

Ekonomia Sustatzeko Sailak bere helburuak lortzeko berari atxikitako Beaz, SAU foru sozietate publikoaren laguntza du. Sozietate horrek Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko Programan esku hartuko du, erakunde laguntzaile gisa. Aurreko guztia hala da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Beaz SAUren artean sinatuko den lankidetza hitzarmenaren arabera; hitzarmenaren xedea da sozietateak erakunde kolaboratzaile gisa jardutea Ekonomia Sustatzeko Sailak sustatutako diru-laguntzei buruzko zenbait foru-dekretutan. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2017ko uztailaren 18an onetsi zuen hitzarmena, zerrendako 19. gaia zela.

Artículo 31. *Entidad colaboradora.*

El Departamento de Promoción Económica cuenta para la consecución de sus objetivos con la asistencia de la sociedad pública Beaz, SAU, la cual intervendrá dentro del Programa de Impulso a la Competitividad Comarcal como entidad colaboradora. Todo ello conforme al convenio de colaboración suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y Beaz, SAU para que actúe como entidad colaboradora en relación a ciertos decretos de subvenciones promovidos por el Departamento de Promoción Económica. Dicho convenio fue aprobado el 18 de julio de 2017 por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, con número de asunto 19.

## Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehenengoa. *Ezarri beharreko arautegi orokorra.*

Dekretu honetan aipatutako dirulaguntzei dagokienez, honako hauek izango dituzte aginduzko: ebazpena emateko foru aginduetan xedatutako baldintzak, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen lege araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren xedapenak, Dirulaguntzen Erregelamendua (2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua), eta Estatuko edo Europako Erkidegoko gainerako arau aplikagarriak.

Era berean, osagarri aplikatuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako

## Disposiciones finales

*Disposición final primera. Normativa general de aplicación.*

Las ayudas a que se refiere el presente decreto foral se regirán por lo dispuesto en el mismo, por las condiciones que se establezcan en las órdenes forales de resolución, así como por las disposiciones de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, Reglamento de Subvenciones, aprobado mediante Decreto foral 34/2010, de 23 de marzo y por la demás normativa estatal o comunitaria que resulte de aplicación.

Asimismo será de aplicación supletoria la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

De acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas

araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa, zeinak europaren araudia egokitu eta osatzen duen.

Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

Eskatzaileak edozein bitartekoren bidez aurkeztutako eskabideetan Administrazio Publikoek dituzten datu pertsonalak aitortzen dituenean, eskabidea jaso behar duen organoak, bere eskumenen barruan, beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahal izango ditu datuak zuzenak direla egiaztatzeko.

Aurrez aipatutako araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko (“ahaztua izateko eskubidea”), aurkaritza eskubidea, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan erreboka dezake lehen adierazitako onarpena.

Halaber izango du eskubidea erreklamazioa aurkezteko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean”.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan xedatutakoa ere beteko da.

Azken xedapenetako bigarrena. *Arauen garapena*.

Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko Saileko titularrari foru dekretu hau garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko, bai eta, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean, beste deialdi batzuk egiteko ere.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Aurrekontuko zuzkidura*.

Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, guztira 367.660,00 euro, jarraian zerrendatuko den aurrekontu partidan, aurrekontu proiektu eta urtekotik ordainduko dira; gutxi gorabeherako kopuruan

físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, que adapta y completa la normativa europea, los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del presente Decreto Foral.

En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

Cuando se formulen solicitudes por cualquier medio en las que el interesado declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.

En cumplimiento de lo dispuesto en la normativa anteriormente mencionada, la persona interesada podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión (“derecho al olvido”), oposición, limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento.

También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos”.

Igualmente será de aplicación lo establecido en la Norma foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

*Disposición final segunda. Desarrollo normativo.*

Se faculta a la persona titular del Departamento de Promoción Económica a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo del decreto foral, así como a la posibilidad de apertura de nuevas convocatorias en el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

*Disposición final tercera. Dotación presupuestaria.*

Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse en la presente convocatoria, por un importe total de 367.660,00 euros, se efectuarán con cargo a la partida presupuestaria, proyecto presupuestario y anualidad

banakatuta agertuko da baina, partida eta zuzkidura aldatu egin daitezke, aurrekontuen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, eta muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

Nº de Proyecto: 2018/0026
08.03/426106/43299/0000

| Ekitaldia | Zenbatekoa (€) |
|---|---|
| 2019 | 30.000,00 |

08.03/426106/44200/0000

| Ekitaldia | Zenbatekoa (€) |
|---|---|
| 2019 | 10.000,00 |

08.03/426106/44300/0000

| Ekitaldia | Zenbatekoa (€) |
|---|---|
| 2019 | 203.660,00 |

08.03/426106/45100/0000

| Ekitaldia | Zenbatekoa (€) |
|---|---|
| 2019 | 124.000,00 |

Aurrekontuko partidari esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onesten diren eskabideen arabera, eta onuradunen izaera juridikoa kontuan hartuta, aurrekontuetako partidei esleitutako baliabide ekonomikoak aurrekontuko kapitulu bereko partiden artean berregokitu ahal izango dira, eta horretarako ez da beharrezkoa izango foru dekretu hau aldatzea.

Horrez gainera, eskabide guztiak ebatzi ondoren aurrekontuaren gehieneko mugara heltzen ez bada, sobera geratutako zenbatekoa gastatzeko baimena ezeztatu egingo da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango foru dekretu hau aldatzea.

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu beharko da.

Halaber, Bizkaiako Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, 43. artikuluaren babesean (5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten du dekretu horrek), aurrekontuko zuzkiduren guztizko zenbatekoa handitu

que se relaciona a continuación, desglosada en las siguientes cantidades aproximadas y sin perjuicio de que la misma pueda ser modificada de conformidad con la normativa presupuestaria vigente, teniendo como límite la cantidad total establecida en las diferentes partidas:

Nº de Proyecto: 2018/0026
08.03/426106/43299/0000

| Ejercicio | Importe € |
|---|---|
| 2019 | 30.000,00 |

08.03/426106/44200/0000

| Ejercicio | Importe € |
|---|---|
| 2019 | 10.000,00 |

08.03/426106/44300/0000

| Ejercicio | Importe € |
|---|---|
| 2019 | 203.660,00 |

08.03/426106/45100/0000

| Ejercicio | Importe € |
|---|---|
| 2019 | 124.000,00 |

Las cantidades asignadas a la partida presupuestaria, tienen un carácter estimativo. En función de las solicitudes que resulten aprobadas, dada la diferente naturaleza jurídica de las personas y entidades beneficiarias, los recursos económicos asignados a las partidas presupuestarias podrán readecuarse entre las partidas del mismo capítulo presupuestario sin que sea obligatorio modificar el decreto foral.

Así mismo, si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante sin que sea obligatorio modificar el presente decreto foral.

En aplicación de lo establecido en el artículo 41.2 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el reglamento de subvenciones de desarrollo de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, los créditos presupuestarios podrán ser modificados antes de que se finalice el plazo de presentación de solicitudes, mediante decreto foral aprobado en Consejo de Gobierno, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas previstas debiéndose, en su caso, ampliar el plazo de presentación de solicitudes.

Igualmente, al amparo de lo establecido en el artículo 43 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia, 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma foral 5/2005, la cuantía total de las diferentes

ahal izango da, gehienez ere 300.000,00 euro gehituz, baldin eta eskuragarri dauden kredituak areagotu badira kreditua handitzea onartu delako edo kreditua sortu edo gehitu delako edo baldin eta kopuru osagarri bat badago aurreko deialdietan aurkeztutako eskaeren zenbatekoa aurrez ikusitakoa baino txikiagoa izan delako; kasu horietan, kreditu osagarri hori soilik izango da eraginkorra baldin eta kreditu horren erabilgarritasuna adierazita badago. Adierazpen hori dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Organo eskudunak baimenduko du kopuru handitze hori.

dotaciones presupuestarias podrá ser ampliada en un importe adicional máximo de 300.000,00 euros, bien cuando exista un aumento de los créditos disponibles derivado de la aprobación de ampliaciones de crédito, generaciones ó incorporaciones de crédito, bien cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe inferior al previsto para las mismas; quedando condicionada la efectividad de la cuantía adicional a la declaración de disponibilidad del crédito, que deberá efectuarse en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención. Dicha ampliación será autorizada por el órgano competente para ello.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarrean jartzea*.

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko Urriaren 1ean

*Disposición final cuarta. Entrada en vigor*.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Dado en Bilbao, a 1 de Octubre de 2019

ahaldun nagusia
diputado general

UNAI REMENTERIA MAÍZ

ekonomia sustatzeko foru diputatua
diputada foral de promoción económica

AINARA BASURKO URKIRI

3-11-01-2019-06